

# LEHENENGO HIZKUNTZA ESKAKIZUNA

Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren B1 maila

## IDATZIZKO AZTERKETA

### [ A eredua ]

- Idatzizko azterketak **bi proba** ditu: irakurmena eta idazmena.
- **1h** duzu azterketa egiteko.

	PROBEN EZAUGARRIAK	AURREIKUSITAKO DENBORA	PUNTUAZIOA (GEHIENEZ)	PUNTUAZIOA (GUTXIENEZ)
IRAKURMEN PROBA	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Bi ariketa dauzka. Biak egin behar dira.</li> <li>• Bi irakurgai eta guztira 10 galdera. Balio berekoak (2 puntu). Gainditzeko, 5 erantzun behar dira zuzen. Txarto erantzuteagatik ez da punturik kenduko.</li> <li>• Testuen luzera guztira: 500 hitz gehienez.</li> </ul>	30 min	20	10
IDAZMEN PROBA	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ariketa bakarra egin behar da eta eskatutako hitz kopurua bete. Eskatutako hitz kopurua ez idazteagatik puntuak kenduko dira.</li> </ul>	30 min	30	15

- **Irakurri** atal bakoitzean datozen **argibideak** eta egizu bertan jartzen duena.
- Egin **idazmen-probako ariketa** horretarako eman zaizun **aparteko orrian**.
- Azterketa-koaderno **hau** ez da jasoko, **zuzentzat da**.

## 1. ariketa

Ondoren testu bat daukazu. Irakurri eta erantzun galderai.

**Aukeratu erantzuna.** Bakarra da zuzena.

### ESKUAK

Europako hego-mendebaldean, duela 41.000 urte, gizakiak eskuak margotzen hasi ziren kobazuloetako hormetan. Goi Paleolitoan hasi eta Neolitora arte jarraitu zuten, eta ez soilik Europan; Indonesian eta Patagonian ere, esaterako, Paleolitoko eskuak topatu dituzte. Beraz, milaka urtetan eta mundu osoan artelan oso antzekoak egin zituzten.

Gainera, esku positiboak eta negatiboak margotu zituzten. Positiboak egiteko, eskuak pigmentuz estali eta horman jartzen zituzten. Negatiboetarako, aldiz, pigmentuak ahoan jaso, eskua horman jarri eta putz egiten zuten, zuzenean edo kanaberazko tutuak erabiliz; horrela, eskuaren silueta horman markatuta geratzen zen.

Adituek argi dute esku horiek esanahi sinbolikoa zutela. Baina zer esan nahi zuten? Pennsylvaniako Unibertsitateko Dean Snow arkeologoak uste du esku horiek emakumezkoenak zirela, eta gizonak ehizara joaten zirenean, emakumeek erritual modura margotzen zituztela, ehiza ugaria izateko. Baina teoria honek hutsune nabarmena dauka: duela gutxi jakin dugu emakumeak ere ehizan aritzen zirela. Beste aditu batzuek diote agian komunitatearen formakuntza emakumeen eskura zegoelako margotzen zituztela, funtzio didaktikoa zutela.

Eskuen beste ezaugarri esanguratsu bat da askori zenbait atzamar falta zaizkiela. 1922an G. H. Luquet arkeologoak esan zuen ez zirela benetako mutilazioak, horrelako mutilazioak dituzten eskeletorik ez baita aurkitu. Leroi-Gourhan historialariak hipotesi horrekin bat egin zuen, eta eskuak zenbatzeko erabiltzen zituztela esan zuen, zenbakiak direla. Baina 2018an Journal of Paleolithic Archeology aldizkarian argitaratutako ikerlan batek dio atzamarrak mutilatzea ohikoa zela eta ez zaiela beste esanahirik bilatu behar.

Munduan margotutako esku gehienak ezkerreko eskuak dira. Zenbaiten ustez, eskuineko eskuak lana sinbolizatzen du eta ezkerrekoak, aldiz, espiritualtasuna. Baina bada beste azalpen praktikoago bat: eskuineko eskuaz margotzen baduzu, eredu bezala ezkerrekoa erabiltzea da logikoena.

Gaur egun, haurrak arte plastikoaren bidez sortzen hasten direnean, eskuak pinturaz zikindu eta gainazal batean markatzen dituzte edota esku negatiboak egiten dituzte, adibidez, arkatzez silueta marraztuta. Hau da, 40.000 urte geroago, eskuak gizakiaren adierazpen artistiko oinarrizkoenetakoa dira oraindik.

IRAZUSTABARRENA, N.

*Argia*. 2022ko abenduaren 4a. Egokitua

## 1. ariketa. Aukeratu erantzuna

### 1. Zer dio testuak kobazuloetan margotutako eskuei buruz?

- a) Lehenengoak Indonesian agertu zirela.
- b) Ez dagoela argi noiz hasi ziren margotzen.
- c) Europatik kanpo ere aurkitu ahal direla.

### 2. Zer teknika erabiltzen zuten esku negatiboak margotzeko?

- a) Positiboak egiteko erabiltzen zuten teknika bera.
- b) Eskuak horman jarri eta pigmentua ahotik botatzea.
- c) Kanaberazko tutua pigmentuan sartu eta eskuaren silueta markatzea.

### 3. Zer uste du Dean Snow eskuez?

- a) Emakumeen erritualak zirela ehiza ona izateko.
- b) Emakumeak ere ehizan aritzen zirela erakusten dutela.
- c) Funtzio didaktiko bat betetzeko erabiltzen zituztela.

### 4. Zer erakutsi du azken ikerlanak atzamar faltaren inguruan?

- a) Benetako mutilazioak izan zirela.
- b) Zenbatzeko modu bat izan zela.
- c) Eskeleto batzuetan aurkitu zirela mutilazioak.

### 5. Zergatik dira ezkerrekoak margotutako esku gehienak?

- a) Margoen bidez lana adierazi nahi zutelako.
- b) Lana sinbolizatzeke eredutzat hartzen zirelako.
- c) Eskuindarrentzat horiek margotzea errazagoa zelako.

## 2. ariketa

Irakurri ondorengo testuak. Hurrengo orrian esaldi batzuk dauzkazu. Esaldi bakoitza testu bati (A, B edo C) dagokio.

**Lotu esaldiak eta testuak.**

### **A** INFORMATIKA IKASTAROA ORION

Orioko Udalak eta Urola Kostako Udal Elkarteak informatika ikastaroa antolatu dute langabetuentzat. Ikastaroan, batez ere, Interneteko baliabideak erabiltzen erakutsiko zaie partaideei.

Erakunde publikoetan informazioa eta dokumentuak Internet bidez egoki kudeatzea da ikastaroaren helburua. Klaseak goizez edo arratsaldean emango dira, astelehenetik ostegunera (2 ordu egunero). Guztira 16 orduko ikastaroa izango da, eta doan.

Izena emateko: Orioko udaletxean, martxoaren 18a baino lehen.

[www.orio.eus](http://www.orio.eus) Egokitua

### **B** INFORMATIKA IKASTAROA ARESON

Informatikaren arloa eta Internet hobeto ezagutzeko helburuarekin, informatika ikastaroa eskainiko da otsailaren 4tik 15era Areson, *Hurbildu IKTetar@* izeneko kanpainaren barruan.

Emakumeentzako eta hirugarren adinekoentzako ikastaroa izango da, eta dohainik. Oinarrizko Windows, Internet eta posta elektronikoa landuko dira eta 9:30etik 12:00etara izango da ikastaroa.

Izena aurretik eman beharko da 639900318 telefonoan (8:30etik 14:00etara). 12 lagunentzat baino ez da ikasteko aukerarik egongo.

[erran.eus](http://erran.eus) Egokitua

### **C** INFORMATIKA IKASTAROAK IZURTZAN

Izurtzako liburutegian dagoen KZgunean informatikako ikastaroak antolatuko dira: mota desberdinetakoak eta ikasleen ezagutza-mailaren arabera.

Izena emateko epea martxoan zehar izango da eta komenigarria izango litzateke lehenago liburutegitik pasatzea zer aukera dagoen aztertzeko. Udaletxeko ordutegia 11:30etik 15:00etara da.

Ikastaroa maiatzaren 7tik 18ra izango da, astelehenetik ostiralera, 16:00etatik 18:00etara eta 18:00etatik 20:00etara.

[www.izurtza.eus](http://www.izurtza.eus) Egokitua

**2. ariketa. Lotu esaldiak eta testuak**

<b>6.</b>	Izena eman aurretik zer eskaintza dagoen begiratzea gomendatzen dute.
<b>7.</b>	Hainbat ikastaro antolatuko dira, ikasleek informatikaz zenbat dakiten kontuan hartuta.
<b>8.</b>	Ordutegi aldetik aukera zabalena dago udalerrri honetan.
<b>9.</b>	Administrazioan hobeto lan egiteko pentsatuta dago.
<b>10.</b>	Hiru arlo zehatz ikasteko aukera izango dute ikasleek.

<b>A</b>	<b>B</b>	<b>C</b>
<b>A</b>	<b>B</b>	<b>C</b>
<b>A</b>	<b>B</b>	<b>C</b>
<b>A</b>	<b>B</b>	<b>C</b>
<b>A</b>	<b>B</b>	<b>C</b>

### Oharrak

- Ondoren, **idazmenerako ariketa** duzu.
- Oso kontuan hartu behar dituzu gaia eta eskatzen zaizun ariketa mota.
- **Emandako informazioa ezin duzu hitzez hitz kopiatu.**
- Garbi idatzi eta saiatu letra argia egiten: **ez da zuzenduko irakurri ezin denik.**
- Erabili boligrafoa idazteko.
- Ez jarri zure izen-abizenik; **asmatu izenpea anonimotasuna bermatzeko.**
- Zuzentzeko orduan, hauexek hartuko dira kontuan:
  - Eskatutako guztiari erantzun diozun.
  - Ideiak garbi adierazi dituzun.
  - Euskara nola erabili duzun: egokitasuna, zuzentasuna edota aberastasuna.

**ZIRRIBORROAK EGITEKO LEKUA ONDORENGO ORRIETAN DAUKAZU.  
EGIN ARIKETA HORRETARAKO EMAN ZAIZUN APARTEKO ORRIAN.**

Gaia kontuan hartu eta aparteko orrian dagoen **leihoa** bete behar duzu.

**Gutxienez 100 hitz** idatzi behar dituzu, **aparteko orrian idatzita aurkituko duzun sarrera kontuan izan gabe**.

**GAIA:** Udaletxeko Enplegu eta Prestakuntza Arloko langilea zara. Herritar batek mezu bat bidali dizu informazioa eskatzeko.

■ **Hauxe da jaso duzun mezua:**

The screenshot shows an email client window titled "Idatzi mezua". At the top, there are three buttons: "Bidali", "Gorde", and "Baztertu". Below these are fields for "Norentzat:" and "Gaia:". The "Gaia:" field contains the text "Egun on:". Below the fields is a rich text editor toolbar with various icons for bold, italic, underline, font color, background color, bulleted list, numbered list, link, unlink, indent, outdent, quote, unquote, and text color. The main body of the email contains the following text:

**Egun on:**

**Gorka Aretxabaleta naiz, herriko biztanlea, eta krisiagatik langabetzian geratu naiz. Berriki jakin dut Udalak langabetuen formazioa hobetzeko ikastaroetan izena emateko epea zabaldu duela. Oso interesatuta nagoenez, mesedez, niretzat baliagarria izan daitekeen informazioa idatziz emango zenidake?**

**Hauxe jakin nahi nuke:**

- **Zer ikastaro mota dauden eta nolakoak diren.**
- **Noiz, non, zer ordutan... izango diren.**
- **Zer baldintza bete behar ditudan parte hartzeko.**
- **Zer dokumentu aurkeztu behar ditudan.**

**Zure erantzunaren zain geratzen naiz. Aldez aurretik eskerrik asko.**

**Gorka**

■ **Erantzun** iezaiozu herritarrek bidalitako mezuari. **Kontuan izan mezuaren hasiera dagoeneko idatzita dagoela; beraz, zuk hortik aurrerakoa idatzi behar duzu.**

**Zirriborroetarako lekua**  
Ez da zuzenduko hemen idatzitakorik



**Zirriborroetarako lekua**  
Ez da zuzenduko hemen idatzitakorik

**Zirriborroetarako lekua**  
Ez da zuzenduko hemen idatzitakorik

**Zirriborroetarako lekua**  
Ez da zuzenduko hemen idatzitakorik

**IVAP**

HERRI ARDURALARITZAREN  
EUSKAL ERAKUNDEA

## [ A eredua ]

- 1. ariketa: aukeratu erantzuna.
- Irakurgaia: «ESKUAK»

1.	C	2.	B	3.	A	4.	A	5.	C
----	---	----	---	----	---	----	---	----	---

- 2. ariketa: lotu esaldiak eta testuak.
- Irakurgaia: «INFORMATIKA IKASTAROAK»

6.	C	7.	C	8.	A	9.	A	10.	B
----	---	----	---	----	---	----	---	-----	---